



# Pil-pilean

TRUKIOIA

Soraluzeko hilabetekaria  
2025eko martxoak 420 alea

## ZUBIAK HERRIA LOTZEN DUTEN PASABIDEAK

**MIGUEL  
ALTUNA**  
Lanbide  
Heziketa  
*zure zubia*

### Ateak Zabalik Jardunaldiak

**Martxoak 29** 10:00 - 11:30

**Maiatzak 8** 10:30 - 16:00 - 18:00

Endi Maltako Zikloa

**EBAZPENAREN ZAIN**

MIKROINFORMATIKA-  
SISTEMETAKO ETA  
SAREETAKO  
TEKNIKARIA

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK  
(D Gradua)

GOI-MAILAKO ZIKLOAK  
(D Gradua)

ESPEZIALIZAZIOAK  
(E Gradua)

ZIURTAGIRI PROFESIONALAK  
(C Gradua)

Agirrebidea, 2, 20570 BERGARA (Gipuzkoa) Tel. 943 899 270 info@maltuna.eus

[www.maltuna.eus](http://www.maltuna.eus)





# PIL-PILEAN 420

2025ko martxo

Azaleko argazkiaren egilea:  
Iciar Arbil.

## Aurkibidea

- |    |  |  |
|----|--|--|
| 4  | <b>Bote prontuan</b> Nikolas Morillo                             | IRITZIA  |
| 6  | <b>Begira</b> Denok kabitzen gara                                | 3 <b>Neuretik</b> Iñaki Iñurrieta <i>Epika berri bat</i>   |
| 8  | <b>Zer berri</b> Aktualitateko albisteak                         | 16 <b>Gutunak</b> Iruñea-Veleia argitu ez suntsitu manifestazioa martxoaren 30ean Gasteizen. Iruñea-Veleia argitu ez suntsitu manifestazioa martxoaren 30ean Gasteizen |
| 18 | <b>Erreportajea</b> Zubiak                                       | 16 <b>Komiki tira</b>  |
| 26 | <b>Kirola</b> Gipuzkoako Hiru Txirlo txapelketa                  | 17 <b>Hausnarketa</b> Garbitasuna herrian  |
| 28 | <b>Kultura</b> Herria nolakoa zen, duela 100 urte                | 17 <b>Puntua</b> Josune Aramendi <i>Kuadrilla bazkariak</i>  |
| 30 | <b>Zerbitzuak</b> Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... |  |



**Pil-pilean herri komunikabidea**

**TOKIKOM**

**Argitaratzailea**  
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze

**Erredakzioa**  
Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno  
egoitz@pilpilean.eus  
605 706 086

Ander Gomez  
ander@pilpilean.eus

**Publizitatea**  
publizitatea@pilpilean.eus

**Zuzentzailea**  
Miren Gallastegi

**Diseinua**  
Goiena  
Oier Larreategi (moldaketak)

**Maketazioa**  
Oier Larreategi  
**Inprimategia:**  
Gertu Koop.

**Banaketa:**  
Pil-pilean Ekoizpena

**Lege Gordailua:**  
SS-537-2000

**Tirada:** 2.100 ale

**Babesleak**



Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak) diruz lagundua



**SORALUZeko UDALA**

# Epika berri bat



IÑAKI IÑURRIETA

“**E**uskaraz Bizi” leloaren inguruan epika berria pizteko tekla aurkitu dugula, eta mugimendu indartsua dabilela Soraluzean eta beste euskal herrietan; euskaraz bizitzeak aurkikuntza berriak dakarzkigula egunero, gero eta beteago dagoela edukiz; erasoaldi mediatikoari, judizialari, neurria hartzen eta erantzuten ikasi dugula hizkuntza-komunitatea sendotzeari esker... Halaxe erantzun nion iaz AMETSERANTZ hausnarketan egin ziguten galdera honi: Euskarari dagokionez, zein da zure ametsa Soraluzean?

Epika berri bat asmatu edo aurkitu beharra daukagu herrigintzan eta euskalgintzan: askotan aditu dut ideia hori azkenaldian. Esango nuke dagoeneko baditugula horretarako zumeak; horretaz konturatzea besterik ez zaigula falta, txinparta hori piztea gutako bakoitzaren gogoan, konturatzea euskaraz bizitzeko nahi eta ekin hau oso ederra dela gaurko munduan, non nagusitu den kapitalismo orain arte neoliberal eta hemendik aurrera auskalo nolako honek dena xehatzen duen, serieko norbanakoak produzituz, ez komunitaterik, ez *polisik* dutenak, beren pribatutasunera mugaturiko idiotak.

*Idiota* hitzak horixe esan nahi baitu jatorriz: bere gauzez baino arduratzen ez dena, beste guztiari ez ikusi egiten diona edo mespretxatzen duena, inolako konpromiso demokratikorik gabe. Eta hori dena, ustezko askatasunaren izenean.

Euskaraz, *konpromiso demokratikoa* esateko beste modu bat *herrigintza* da. Herrigintzarekin guztiz bat eginik doa euskalgintza. Pil-pilean bezalako euskaltzale elkarteak puntarri zarete horretan, ari zarete esaten bagarela komunitate bat komunitate izaten jarraitu nahi duena. Biba zuek!

Artikulu hau idazten hasi naizen ordu berean hasi da Soraluzean maiatzeko Euskaraldirako hamaikakoa aurkezteko ekitaldia. Badut asmo bat falta diren bi hilabeteotarako: Tolosako Galtzaundi elkarteak antolatutako Euskaldunen Ahalduntze Taldean parte hartzea. Sei saio izango dira, euskaraz bizi nahiak gure egunerokoan sortzen digun hizkuntza-estresari aurre egiten ikasteko. Lerro hauek irakurtzen dituzuenarako, egina izango dugu lehena.

**"(...) KONTURATZEA  
EUSKARAZ BIZITZEKO  
NAHI ETA EKIN HAU  
OSO EDERRA DELA  
GAURKO MUNDUAN"**

# “Herrian egon beharko litzateke espazio kolaboratibo bat”

---

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIA: FERNAN OREGI TXURRUKA

---

Hilabeteotan, teknologiaren erabilerarekin lotuta pertsona helduendako hiru tailer eskaini ditu Nikolas Morillok (Soraluze, 1957) jendartEKIN ekimenaren eskutik. Bost urte daramatza heldu-nagusiek teknologiaren ezagutza izan dezaten ekimenak egiten. Bloga ere badu halako gaiekin lotutakoa. Berez, Armeria Eskolako eta UNEDeko irakasle erretiratu da Morillo.

## **Zer lantzen duzue zure tailerretan?**

Oinarrizko gauzak, batez ere Internet erabiltzen, eta normalean jendeak ez dakizkien beste gauza batzuk. Adibidez, jaitsitako fitxategi bat topatzen eta halako gauzak egiten. Baina tailerrak, batez ere, jendeari beldurra kentzeko dira. Itxaropena Erretiratuen Elkartearekin hasi nintzen tailerrak ematen eta orain jendartEKINekin nabil.

## **Bost urte daramatzazu halako tailerrak egiten; zer da, batez ere, ikusi duzuna?**

Jendeak, normalean, oso konfiantza gutxi daukela informatika eta, orokorrean, IKTak, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia erabiltzeko. Beldurra dauka jendeak, eta nire ustez, ez da eduki behar beldurrik. Beldurra baino, eduki behar dena arreta da. Normalean, beldurra diogu ulertzen ez dugun horri. Tailer hauetan batez ere oinarriak erakusten saiatzen naiz, jendeak ulertu dezan zer daukan esku artean. Horrek segurtasun handia ematen du. **Izan ere, helduek eta nagusiek badute zer irabazi teknologiaren erabilerarekin, ala?**

Bai, asko. Emateko eta irabazteko. Adibidez, zerbait erosi nahi dute eta ez dakite nola. Edo nahi dute ikasi nola eskatu ordua anbulategian, edo Errenta Aitorpena egin, txosten medikuak lortu, Imersoko bidaiak hartu... Gauza piloa egin daiteke. Baina ez dakite.

## **Batzuek diote ezin dutela...**

Horiek negazionistak dira. Ez da derrigorrezkoa. Ez badute nahi, hor konpon. Baina ahal, guztiok ahal dugu.

## **Zure gomendioa?**

Egin eta egin. Hasi egiten. Informatika eta matematika gauza bera da. Biak ikasten dira egiten. Nire garaian ez zegoen informatika. Eta nik ere ikasi dut egiten.

## **Adibidez, 40 urterekin animatu zinen Informatika karrera ikasten...**

Informatika munduan 30 urterekin-edo hasi nintzen, nire kabuz, informatika hasi berria zen orduan. Armeria Eskolara -irakasle nintzen bertan- heltzen zen ordenagailuren bat hartu eta trasteatzen ikasi nuen, gero, ikasketak egin nituen.

## **Teknologia/informatika kontuetan, jendeak laguntza gehiago beharko lukeela uste duzu?**

Behar da. Ez dago nahikoa, ezta pentsatu ere. Soraluzen, adibidez, egon beharko litzateke espazio-gune kolaboratibo bat pertsonak elkarren artean laguntzeko. Emakumeek, adibidez, badute joskintza tailer bat, bi gidarirekin. Ba gauza bera, baina informatikarekin-teknologiarekin lotuta. Nire ustez, Udalak hor badauka zeregina. Ez da nahikoa ikastaro bat egitea. Ni egunero elkartzen naiz kalean laguntza behar duen jendearekin. Halako espazio-guneren bat balego, hara joango litzateke jendea eta elkarri lagundu. Informatika alorrean oso interesgarria litzateke, nik garrantzia handia emango nioke.

## **Zuk, bitartean, segitzen duzu jendea hezten. Zentzu horretan, bloga ere baduzu.**

Bai, *NikolasMorillo* bloga. Eta Itxaropenako bloga ere sortu nuen. Zerbait berria egiten dudanean, materiala sortzen dut nire blogean. 500 bat bideo daude. Nik asko ikasi dut interneten, internetek asko eman dit, hortaz, ahal dudanean nik ere ematen dut interneten. Orain gutxiago, gauza gutxiago egiten dudalako. Adibidez, nire blogean badut ikastaroren bat PCari edo Internetari buruz, bideo eta guzti. Nahi duenak hor du trasteatzeko.

## **Zure blog horretan demaseko piropoak esaten dizkizute...**

Noizean behin bai. Hori ez da nire errua (barre) lotsa ematen dit, baina poztasuna ere bai.









## Denok kabitzen gara

**ARGAZKIA: LOREA DE CASTRO**

**TESTUA: ARIANNE UNAMUNO**

Sorpresa asko eman izan ditu Euskaraldiak eta oraingoan ere emango ditu. Euskaraz ulertzen dugunok uste duguna baino gehiago gara. Euskaraz gehiago, gehiagotan, gehiagorekin egiteko prest gaudenak. Hizkuntza portaerak aldatzeko prest gaudenak. Batzuek kolpera, beste batzuek pixkanaka. Jatorri, adin, lanbide, genero eta hizkuntza gaitasun desberdinekoak batzen gaituen ariketa erraldoia da. Herrian osatu dugun Hamaikakoa da horren adibide. Euskaraz ulertzen dugun hamasei urtetik gorako denok kabitzen gara Euskaraldian. Hobeto edo okerrago berba egin, gogotsu gauden denok dugu lekua. Batu zeu/heu ere eta elkar mugituz egingo dugu/dinagu!





# Herria txukuntzeko lantaldea

OTSAILEAN HASI ZEN ZORTZIKOTEA LANEAN, ARKAITZ ARANA GIDARI DUTELA

**TESTUA** UBANE MADERA ZANGITU

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI TXURRUKA

Hilabetean, zeharo aldatu da udal brigada; orain zortzi peoi gehiago eta arduradun berria daude lantaldean.

Hasiera batean, lantalde berria sei hilabetez ibiliko da herrian lanean, "margotzen, belarrak-eta kentzen, panelak eta markesinak garbitzen, igogailuak... denetarik egiten, gehienbat mantenua. Lantaldea bost mutilek eta hiru neskek osatu dute. Edade guztietakoak, gazteak, ez hain gazteak eta 61 urteko baten bat ere badago. %75eko lan-jardunarekin ari dira. Formazioa ere jaso dute alde zurretik eta orain, astean hirutan pare bat orduko formazioa egiten dute KLB8an, lanera enfokatuta", esplikatu du Arkaitz Arana arduradunak (Zeanuri, 1971).

## Mantenu lanak

Nabarikoa da erdigunean egiten ari diren lanaren emaitza: Plaza Zaharreko jarlekuak margotu dituzte, Zubi Nagusikoak, bertako baranda eta farolak garbitu dituzte, Elizburu kaleko baranda ere bai, Plaza Berriko iturriak garbitu, zubikoari ura ipini diote berriro, paretetik belarrak kentzen ari dira, parkeak berrituko dituzte... Eta ildo beretik segituko dute lanean erdigunean zein auzoz auzo, taldeka banatuta.

Aranak esplikatu duenez, hasieran taldekide berriek



Udal lan-talde berria herriko txokoak txukuntzen.

elkarren ondoan jardungo dute "ikusteko bakoitza zelakoa den eta zer aukera dituen, eta gero taldetxoak egin eta auzoetara-eta zabalduko dira".

## "Garbitzaile bakoitza behar"

Aranaren ikuspegitik, herrian bazegoen halako txukuntze orokor baten beharra, hainbat arrazoiengatik, baina batez ere, herria ez dela batere zaintzen uste du: "Denetik botatzen dugu lurrera. Jendea batez ere txakur kakez kexatzen

da, ez zaio inori gustatzen kaka zapaltzea, baina niri ez zait gustatzen paper bat zapaltzea ere. Aurrekoan, hausnarketa egin nuen: horrela jarraituz gero, beste 10 urte barru Soraluzen garbitzaile kopuru bakoitza beharko da, bestela herria zikin-zikin egongo da".

## Uda ostean ikusi behar

Edozein modutan, datozen hilabeteotan buelta ederra emango diote herriari. Aranaren esanetan, lantaldea gogotsu ari da lanean, "orain arte hiru langile egon dira brigadan eta orain 11 lagun dira. Kopurua asko handitu da eta herrian hori igartzen da".

Berez, lantalde berria eta egiten ari diren zereginak proba izango dira. Arkaitz Arana bera, berriz, brigadako

**HILABETEOTAN  
ERDIGUNEAN ZEIN  
AUZOZ AUZO IBILIKO  
DIRA LANEAN  
TALDETAN BANATUTA**





Elizburuko baranda margotzen.



Zubi Nagusiko baranda garbitzen.

buruaren baja kubritzera etorri da: "Figura hori falta zen, baja luze bat zegoela-eta, aukera eskaini eta probatzeko asmoarekin etorri naiz. Ni

Iñakiren baja kubritzen nago. Lantalde berriari dagokionez, berriz, proba moduan dago, baina aurrerago jarraipena izan ahal du". Arana Bakion zeukan

lana lagata eta 22 urtean Zeanurin brigadako arduradun izateak emandako esperientziarekin etorri da Soraluzera.

## "Ez dugu herria ezer ere zaintzen"

**ARKAITZ ARANA** BRIGADAKO GIDARI BERRIA

22 urtez Zeanuriko brigadako arduradun eta beste bi urtez Bergarako brigadan langile izan da Arkaitz Arana. Azken urtean, berriz, Bakion zebilen, orain Soraluzen duena moduko lanpostu batean. Honako aukera eskaini zioten eta buru-belarri dihardu lanean.

### **Kalean esan dizuete igartzen denik? Zertan?**

Jendeak esaten du igartzen dela brigada asko handitu dela eta horrela leku gehiagotara heltzen garela, eta beharizan handia zuten garbiketak egiten ari garela.

### **Egoera uste baino hobea ala okerragoa zen?**

Egoera nahiko okerra da, brigadako langile kopurua



txikia izan da eta ikusten da ez zegoela aukerarik leku/auzo guztietara heltzeko. Orain arte hiru langile izan dira eta orain

zortzi gehiago dira. Bestalde, esan nahiko nuke talde berria eta lehen zegoena oso ondo moldatu direla elkarren artean, tarteka nahastu ditugu lanerako eta elkarrekin antolatuta lan handia egin daiteke. Dena den, horrekin batera, esan beharra dago nahiz eta herria ondo garbituta laga, arratsaldeko zazpietarako zikin-zikin dagoela berriz. Ez dugu herria ezer ere zaintzen.

### **Zer ari da izaten zailena?**

Herriak dituen bazter edo zulo guztiak ondo ezagutu eta bakoitza txukuntzeko zein baliabide edo jende ipini behar den jakin.

### **Txakur-kakak ez dituzue batuko?**

Berez, jabeak batu behar ditu eta horrela ez bada, kale garbiketako lana izango da, baina hori ez da bidea.

# Oraindik ere autoa errege

EUSKAL HERRIKO MUGIKORTASUN EREDUA AZTERTU DU SARETZENEK

**TESTUA** UBANE MADERA - SARETZEN

GRAFIKOAK: OIER LARREATEGI

Mugikortasuna edo pertsonen joan-etorria eguneroko ogia da herri eta hiri guztietan. Lanera edo ikastera joateko -%42- edo beste betebeharrak batzuk asetzeko -%29 erosteko eta edo gestioengatik eta %22 aisialdiarengatik- ematen da mugikortasuna, eta, Eusko Jaurlaritzaren azken Mugikortasun Inkestaren datuen arabera (2021), 6,5 milioi desplazamendu gertatzen dira egunero EAEn; horietatik % 45 oinez, % 33, autoz eta % 15, garraio publikoan.

## Onena existitzen ez dena

Zelan mugitu, oinez, autoz, autobusez, trenez, bizikletaz...

ez da soilik garraiobide kontua: gure herrien, hirien eta lurraldeen egituraren isla zuzena da. Mugikortasun ereduak ez dira neutroak; Historia kontatzen dute, eguneroko bizitza baldintzatu eta etorkizuna irudikatu. Horixe da Ander Gortazar arkitekto eta EHUko Hirigintza eta Lurralde-antolaketa Saileko irakaslearen iritzia: "Mugikortasuna eta hirigintza ia gauza bera dira", adierazi du Mugikortasunari buruz Saretzenek -Tokikomek eta EiTBk- argitaratu berri duen txostenean.

Halaber, mugikortasun ereduak neutroak ez diren moduan, eredu onak eta txarrak daudela ere badio, eta, eredurik onena dela mugikortasunik

txikiena duena. "Eguneroko behar nagusiak lortzeko gehiegi mugitu behar izanez gero, ez da positiboa, eta gehiegi mugitu behar horretan hasten gara mugikortasun horren ondorio negatiboak pairatzen, horrenbestez: emisioei, denborari, espazioari dagokionez... Mugikortasun onena, agian, existitzen ez dena da".

Gortazarren esanetan, soldatapeko lanarekin dago lotuta mugikortasunaren arazo nagusia. "Soldatapeko lan asko hiriaren kanpoaldera eraman ditugu azken urteetan, lurra merkeago delako, adibidez. Baina horrek ondorio batzuk izan ditu, eta gastu batzuk externalizatu dira

## Debabarreneko ibilgailu-parkea 2023an eta 2019arekiko desberdintasuna

	Ziklomotorrak		Motozikletak		Turismoak		Furgonetak		Kamioiak		GUZTIRA	
	Kopurua	desb.	Kopurua	desb.	Kopurua	desb.	Kopurua	desb.	Kopurua	desb.	Kopurua	desb.
<b>Deba</b>	68	+3	236	+34	2.831	+211	286	+27	351	-57	<b>3.913</b>	<b>+234</b>
<b>Eibar</b>	380	-36	1.256	+141	11.701	-264	780	+18	803	-93	<b>15.342</b>	<b>-187</b>
<b>Elgoibar</b>	138	-16	454	+49	5.287	-24	453	+30	502	-32	<b>7.101</b>	<b>-10</b>
<b>Ermua</b>	244	-18	651	+39	6.880	-56	341	+52	537	-74	<b>8.831</b>	<b>-20</b>
<b>Mallabia</b>	27	-1	89	+16	823	+37	153	+30	206	-8	<b>1.391</b>	<b>+103</b>
<b>Mendaro</b>	18	-2	88	+22	918	+12	67	-3	68	+4	<b>1.221</b>	<b>+55</b>
<b>Mutriku</b>	129	+8	330	+97	2.584	+136	183	+26	239	-6	<b>3.577</b>	<b>+271</b>
<b>Soraluze</b>	81	-5	142	+16	1.929	-81	157	+5	160	-35	<b>2.564</b>	<b>-65</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.085</b>	<b>-67</b>	<b>3.246</b>	<b>+414</b>	<b>32.953</b>	<b>-29</b>	<b>2.420</b>	<b>+185</b>	<b>2.866</b>	<b>-301</b>	<b>43.940</b>	<b>+381</b>

ITURRIA: SARETZEN



## 2014AN BAINO %50 GASOLINDEGI GEHIAGO DAUDE DEBABARRENEAN NAHIZ ETA PARKE MOBILA IA BERDINA DEN

## "BEHAR NAGUSIAK LORTZEKO GEHIEGI MUGITU BEHAR IZANEZ GERO, EZ DA POSITIBOA"

mugikortasunean, horrenbestez. Enpresari hobeto irteten zaio urruti joatea, baina langileari, ez. Bada, goizetan, arratsaldetan ikusten ditugun auto-ilara asko horren ondorio dira, ez ditugulako lortu gure hiriak erabilera ezberdinekoak izatea. Eta gauza bera gertatzen da herrietan ere. Lehen herriak askoz ere dibertsoagoak ziren: industria kutsatzailea zenean, hiri barruan zegoen, eta orain gure enpresak ez dira kutsatzaileak, eta, hala ere, hiritik kanpo jartzen ditugu. Eta horrek mugikortasun mota bat sortzen du; askotan, ez dago besterik".

### Ibilgailu pribatuak

Gainera, gure mugikortasunerako ibilgailu pribatuak errege izaten segitzen du, EAEko eguneroko joan-etorrien % 33-44 ibilgailu pribatuan egiten baitira.

Lurraldeka aztertuta, Gipuzkoa da auto pribatuaren erabilera liderra (% 44), eta Araba (% 43) eta Bizkaia (% 33) ditu atzetik. Nafarroan ere, eskala berean banatutako

daturik izan ez arren, autoa da garraioberdiker erabiliena.

Autoaren erabilera sexuaren eta adinaren arabera aztertuta, berriz, 20 eta 64 urte bitartekoen ia erdiek bere ibilgailua aukera nagusi dute eguneroko; aldiz, emakumeek eta adinduek gehiago erabiltzen dute garraio publikoa, emakumeen (% 51) eta 65 urtetik gorakoen artean (% 72).

### Hemen ere berdin

Debabarrenera zein Sorluzera etorrira, hemen ere nabarmena da ibilgailu pribatuaren nagusitasun hori. Sorluzeko 3.869 bizilagunen artean -3.278 dira 18 urtetik gorakoak, hau da, gidabaimena izan dezaketenak-, 2.564 ibilgailu pribatu daude eta horietatik 1.929 dira turismoak.

Datuak ikusita, bada, gaur egun, Euskal Herriko erronka nagusietako bat da dispersio geografikoa, zaharkitutako ohiturak eta eredu jasangarriaren premia eta


eguneroko joan-etorriak uzartzeko modua topatzea.

Izan ere, EHUko arkitektoak esan duen moduan, "jende guztiak kotxea hartuko balu ez dago tokirik denentzat, ez da bideragarria, baina oso zaila da kotxea behar duenaren eta behar ez duenaren arteko muga hori jartzea. Azken batean, ez da muga bat, baizik eta, gradiente moduko bat, eta oso zaila da esatea nork ahal duen eta nork ez".

Egoerari aurre egiteko bidea garraio publikoa da: "Izan behar du mugikortasunaren bizkar hezurra, baina garraio publikoak funtzionatu ahal izateko baditu nolabait lege batzuk: ongi funtzionatu dezan behar du maiztasuna, pertsona fluxu bat... Aldiz, gure mugikortasun beharrak izugarri dispersatu baditugu, oso zaila da egoera horri garraio publikoaren bidez erantzutea, ez bada garraio publikoa bera pentsatzeko modua ere apur bat aldatzen dugula", dio Gortazarrek.

## Ibilgailuak erregai motaren arabera

ITURRIA: SARETZEN



Gaztaitxoan azaltzen diren datuak Debabarrenekoak dira baina ehunekoei dagokienez Sorluzeko datuak ia berdinak dira.

# "Garraio publikoa ere eraldatu daiteke"

**ANDER GORTAZAR** ARKITEKTOA ETA EHUKO HIRIGINTZA ETA LURRALDE-ANTOLAKETA SAILEKO IRAKASLEA

Arkitektoa eta EHU Euskal Herriko Unibertsitateko Hirigintza eta Lurralde-antolaketa Saileko irakaslea da Ander Gortazar (Donostia, 1985).

## **Hitz egin al daiteke mugikortasun-hirigintza eredu on eta txarrei buruz?**

Badira mugikortasun eredu onak eta txarrak. Askotan aipatzen da helburua ez dela horrenbeste mugitzea, baizik eta, zerbitzu batzuetara iristea; horrenbestez, mugikortasunik onena batzuetan gertatzen ez dena da: alegia, gertukoa dena. Eguneroko behar nagusiak lortzeko gehiegi mugitu behar izanez gero, ez da positiboa, eta gehiegi mugitu behar horretan hasten gara mugikortasun horren ondorio negatiboak pairatzen, horrenbestez: emisioei dagokionez, denborari dagokionez, espazioari dagokionez... Mugikortasun onena, agian, existitzen ez dena da.


## **Nola baloratzen duzu garraio publikoaren sistema?**

Ez da galdera erraza. Hirietan, adibidez, Donostia kasutzat hartuta, esango nuke nahi duenak baduela aukera, eta askotan hartzen ez duenak ez duela nahi, nahiago duela minutu batzuk irabazi beste garraio batzuk erabilita. Baina egia da eskalaz handitzen garenean eta lurraldean sartzen garenean fedea eta militantzia behar dela garraio publikoari eusteko. Aldirietako trenarekin gertatu dena ikusi besterik ez dago. Eta nik uste dut hor dugula erronka: garraio publikoa ere eraldatu

daiteke, eta horretan jarri beharko ginateke.

## **la bi milioi ibilgailu daude Hego Euskal Herrian, %70 bat turismoak. Biztanleria hiru milioira ere ez da ailegatzen, beharrezkoak dira hainbeste ibilgailu?**

Kotxea ez da makina batere eraginkorra. Bere denboraren %95 aparkatuta pasatzen du, bi



Ander Gortazar arkitektoa. GOIENA

tonako tramankulu bat behar dugu 80 kiloko pertsona bat mugitzeko... Efizientzia energetikoaren aldetik, ez da oso jasangarria, baina kontua da autoak asmakizun bezala gure mugikortasuna asko erraztu dezakeela. Orain asko hitz egiten ari da kotxea jabetzan dugun objektu bat izatetik erabiltzen dugun objektu bat izatera pasatu

"BI TONAKO MAKINA 80 KILOKO PERTSONA MUGITZEKO; KOTXEA EZ DA ERAGINKORRA"

beharko litzatekeen ideiaaren inguruan: hau da, nik ez dut kotxerik, baina kotxe bat erabili dezaket behar dudanean, izan sare publikokoa edo pribatukoa, jabetza elementu izatetik erabilera objektu izatera igarota. Eta horrek igual gure kotxe kopurua, ez dakit, baina %70 jaitsi dezake. Beste kontu bat da hori nola egiten den, baina ideiatzat niri oso indartsua iruditzen zait..

## **Bada eredugarria den herrialde, hiri, herri bat?**

Garraio publikoaren azpiegiturari dagokionez, Suitza dago, eta aipagarria iruditzen zait duten gertuko tren sarearengatik, eskualdekoa, eta intermodalitatea oso sartuta duen lurralde bat da, era berean: tren hartzen duzu, ateratzen zara, autobusa duzu ondoren... Badaude Europako beste toki batzuk ere: Danimarka edo Herbehereak, adibidez. Herrialde horietan oso sartuta dute bizikletaren kultura, eta egia da inguru lauak direla batez ere, baina hor ere hotz egiten du, negua gogorra da, eta bizikletan erabiltzen dute, hala ere. Hortik badugu nahikoa ikasteko. Euskal Herrian, berriz, lan dezente egin du hirietatik Gasteizek aspalditik, eta alderdi politiko oso ezberdinek sustatua garraio publikoaren inguruan, bizikletaren inguruan eta abar; beraz, toki horietatik guztietatik atera ditzakegu ideiak. Ideiak soberan daude, ez da ezer berria asmatu behar: non begiratu, hori da agian jakin behar dena. Berriz pentsatzea.



**BOLIA**  
TABERNA



Pirriok, ardiak,  
kombinatuak  
Gazte-giriko festa

**MGS**  
Seguros

Veronica Gallarraga  
Gertuko eta segurua



Astelehenerdik ostialdera:  
10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30

Santa Ana 13  
☎ 645 744 055

**Criado**  
Fruitatogia Urdaitegia

- Enkarguak Whatsapppe
- Etxerako zerbitzuak
- Iberiarok & delicatessen

Astelehenerdik ostialdera:  
09:00-13:00 eta 17:00-20:00  
Larunbatak: 09:00-13:00

☎ 629 958 536



**TXURITXU GOZOTEGIA**

Astelehenerdik ostialdera:  
08:30-13:00 eta 16:30-20:00

Larunbata: 08:30-13:00  
Igandak: 08:30-14:30



Gosariak, ogi,  
gremia, pastirik,  
borboniak...  
Etxera eramateko  
zerbitzua

Tel. 943 75 24 43

**MABEL**  
Laser PAINBEGIA

- Laser depilazioa
- Keratina tratamendua
- Solariuma

Erratel 1  
Tel.: 943 75 14 89



**Armendi Jatetxea**

Sukalde tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburuetan menu berezia  
Karta  
Burduntzian erretako bildotsa  
Eltxeko fritokak  
Souffleak

Tel.: 943 75 10 02



**OTILLA HARATEGIA**

- Enkarguak hartzen ditugu
- Gertuko ganadua
- Etxeko tripak, bistona, salbitxa eta mingaina

Etxabaretza 5  
Telefonoa: 943 75 23 75



**KM design**

Kira Muntatzen

943 76 09 85

karuntxokak@yahoo.es  
www.kmdesign.es

Pol. Amilaga 3  
BERGARA

- Diseinu eta Fabrikazio lanak
- Sukaldeak
- Horma-ornatuak
- Logelak
- Zinukak
- Aleak...

- Arotzeria lanak oro har
- Instalazioak

**ELGOIBAR BHI**

Artistiko musikala · Osasun-zientziak  
Zientifiko-teknikoa · Humanitateak  
Gizarte zientziak

**2025-2026 ikasturtea**  
Batxilergoko aurrematrikulazio epea:  
**martxoaren 31tik apirilaren 11ra arte**



943 89 93 16    www.elgoibarbhi.eus    013431aa@hezkuntza.net



INGENIARITZA  
DUALAREN ESKOLA  
ESCUELA DE  
INGENIERIA DUAL



## Markel López Vasco

Elgoibartarra. 22 urte.

**Berrikuntzako Ingeniaritza Duala**  
Ikasle ohia

### **Berrikuntzako Ingeniaritza Gradu Duala amaitu berri duzu. Esan ahal diguzu zergatik aukeratu zenuen Elgoibarko Ingeniaritza Dualaren Eskolan ikastea?**

Batxilergo zientifiko-teknologikoko ikaslea nintzela, banekien ingeniaritza ikasi nahi nuela, arloarekiko nuen interesagatik eta eskaintzen dituen lan-aukera onengatik. Hiru arrazoi nagusirengatik aukeratu nuen karrera hau: berrikuntzan nuen interesagatik (soluzio berriak sortu, hobetu edo diseinatu); eredu dualagatik (karrerako bigarren urtetik lan eginez nire laneratzea erraztuko zelako); eta unibertsitate bizi naizen herrian bertan edukitzearen erosotasunagatik.

### **Nolako esperientzia izan da?**

Positiboa, eta aldi berean, trinkoa. Positiboa, ia hasieratik izan dudalako harremana enpresarekin. Horrek lagundu dit ikasitakoa ulertzen, eta baita ere bizitza errealean ikusten teoria hori praktikan aplikatzen dela eta nola. Bestalde, gogorra izan da, karrera honek dakarren lana eta dedikazioagatik: Hiru egun lanaldi osoan lan egitea eta beste bi egunetan 8 orduz ikastea gogorra da, eta horri gehitu behar zaizkio ordutegi horretatik kanpo egunean eraman behar dituzun lan eta proiektu guztiak.

### **Espero zenuena bete al da? Zure espektatibak bete al dira? Zerbait aldatu zen lau urtez ikasten egon ondoren?**

Bai, neurri handi batean. Ikasketa praktikoa espero nuen, eta proiektuen bidez lortu dut hori. Gainera, karrera amaitu aurretik lan esperientzia irabazi dut. Bestalde, karreraren edukietan espezializazio handiagoa espero nuen, baina lau urteren ondoren konturatu naiz ingeniaritza hainbat arlotan arazoak konpontzeko ezagutza teknikoak eta trebetasunak irakasten dizkizun karrera dela, eta benetako espezializazioa lan esperientziarekin batera iristen dela.

### **Lan esperientzia izateko aukera eman dizu Eredu Dualak. Berrikuntza proiektuetan lan egin duzu. Zure ustez, lagungarria izan al da amets profesionalak betetzeko?**

Eredu dualari esker, enpresetan dauden benetako arazoak ikusi ahal izan ditut, baita horiei aurre egin ere, trebetasun teknikoak eta arazoak ebaztekoak garatu, praktikak bakarrik eskain dezakeen moduan. Beraz, helburu profesionaletara hurbiltzen lagundu dit, ikasketak lan esperientziarekin eta mundu profesionaleko arazoei aurre egiteko prestakuntza hobarekin amaitu baititut.

## Berrikuntza Ingeniaritzako ikasleen bizipenak

### **Zein enpresatan garatu duzu zure profil profesionala? Azaldu ahal dizkiguzu zure Ikerketa Zientifiko Teknikoa eta IZT Gradu Amaierako Lana?**

Goizper S. Coop. enpresan egin dut duala, eta han garatu dut profil profesionala, produktu-ingeniari gisa. Goizperren produktu baten osagai mekaniko nagusien higadura goiztiarraren arazo bati aurre egitea izan zen nire 3. mailako IZTa, zehazki biraketa-mahaietan, horiek abiadura handian biratzen hasten zirenean. Proiektu honetan, arazo honi buruzko artearen egoeraren ikerketa bat egin behar izan nuen, produktuan egon zitezkeen aldaketak edo hobekuntzak planteatzeko. Hobekuntza horiekin gero balioztatzea egiteko, nire kasuan esperimentala, Goizperrek entsegu banku bat baitu produktuak entseatzeko. IZT horri esker, zenbait muga identifikatu ziren osagai mekanikoetako baten diseinu geometrikoan eta produktuaren osagaien zehaztasunean. Hori dela eta, Goizperrek aplikazio azkarretarako biraketa-unitateen familia berri bat garatzea erabaki zuen, merkatuaren abiadura eta zehaztasun eskakizunak gainditzeko. Testuinguru horretan, 4. mailan, nire GRALak jarraipena egin zion IZTri, eta produktuaren analisiari ekin nion, baita familia berriaren tarteko tamainetako baten kalkuluarri eta diseinuari ere.

### **Atzerriko lan praktika egonaldia ere egin duzu**

Goizper France enpresan izan nintzen ia hiru hilabetez, bezero frantziarren eskaerak garatzen eta diseinatzen, eta arazo teknikoak konpontzen. Egonaldiak lagundu zidan profil profesionaleko gaitasun hartzuk hobetzen, lanerako autonomia handiagoa hartzen eta lan-kide teknikari komertzialen profila ulertzen. Maila pertsonalean Frantziako desberdintasun kulturetara egokitu nintzen, eta ingelesezko komunikazioa landu nuen.

### **Gradu hau ikastera nor animatuko zenuke?**

Ingeniaritzaren alorrean interesa duten mutik zein neska animatuko nituzke; prestakuntza praktikoa nahi dutenak eta laneratze ona ziurtatzeko beren lanarekin konprometituta daudenak.

## Gehiago jakin nahi?

Zatoz apirilaren 5eko  
ateak irekitzeko ekitaldira





Adin txikiko pertsona askok harrera-familia bat behar dute. Eta familia askok erantzuna eman diezaiokete egoera horri. Baina ez dute deitzen uste dutelako ez datozela bat perfilarekin. Horregatik, deitu aurretik zalantzak argitzen dituen lehen telefono zenbakia sortu dugu. Zure familia 6, 8, 2, 5, 4 edo 3 kidekoa izatea berdin duelako. Garrantzitsuena delako, bakarrik haziko den adin txikikorik ez egotea. Deitu ezazu.



682554433



**GIPUZKOA**  
Foru Aldundia

**MENDIZABAL**  
okindegia  
Ogla · Prentsa · Gosariak

Astelehenerdik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00

Larunbatak eta igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99

**Kontugest**  
GROUP

Ahoikularitza fiskala · Kontabilitatea  
Lan-aholkularitza · Zerbitzu juridikoa  
Ticket bai · Outsourcing · Aseguruak

[www.kontugest.com](http://www.kontugest.com)

**IZZGURRE**  
Igeltzeritza

Eraikin berriak · Kalitateko emaitza  
Erreformak · Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia · 610 638 913

**ODRI**  
ATEAK ETA LEIHOAK

Mota guztietako leihoen, pertsiaken, ateak, barandilak salmerita eta korponketa

**ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA**

T. 662 234 609  
Bagar Ereteka Kalea 2 · 20090 SORALUZE  
e-mail: [odrihoak@gmail.com](mailto:odrihoak@gmail.com)

**SORALUZE MOTOR**

Mendiola ind. 13  
Soraluze

676 556 817 - 943 75 21 38

**Txoko**

Eguneko menua, plater konbinatuak, hamburgerak, ogitarleak, ogitarleak, natilla, pizza, gosaria...

Enkarguak egiten dira  
Tel. 943 75 17 88

Euskalzaletasunaren alde:

**aras**



**laibi**  
ELECTRICIDAD

## GUTUNAK

### “Iruña-Veleia argitu, ez suntsitu” manifestazioa martxoaren 30ean Gasteizen

#### IRUÑA-VELEIA ARGITU, EZ SUNTSITU PLATAFORMA

2009an Eliseo Gilek eta Idoia Filloyk zuzentzen zuten Lurmen arkeologia taldea modu bidegabean bota zutenetik, hainbat aldiz sartu dute hondeamakina aztarnategian, hondoko harria jo arte. 2010ean EHUKo Julio Nuñezek zuzentzen zuen taldeak 7.000 m<sup>2</sup>ko eremu bat suntsitu zuen harresi kanpoaldean, eta 2016an euskarazko grafito asko agertutako 6. sektorea hondatu zuen. 2023tik gaur arte, Qark enpresa sekulako sarraskia egiten ari da aztarnategiko leku ezberdinetan. Hau guztia, jakina, Arabako Foru

Aldundiaren babesaz eta bedeinkapenez.

Hiru kasuetan salaketak jarri dira epaitegiaren aurrean, txikizioaren bideoak eta argazkiak erakutsiz, baina erantzuna beti berdina izan da: zuzen jardun dute arkeologoek. Hainbat aldiz eman zaie honen guztiaren berri agintariei, parlamentariei, arkeologoei, kazetariei, hau da, gizarte honetan erabakimena eta influentzia duten guztiei, baina orain arte ezentzun eta ezikuski egin dute beti. Manifestazioak, sinadura-bilketak, biltzarrak, liburuak, hitzaldiak, bisita gidatuak..., denetik egin da egoera gizarteratzeko, eta egiten jarraitu beharko bada bidegabekeria sinestezin hau luzatu ez dadin.

“Iruña-Veleia argitu” dio lemaren lehen parteak. Oso

erraza da eztabaidatutako grafitoak benetakoak diren ala ez jakitea. Aski litzateke laborategi espezializatuetara piezen lagin bat bidaltzea. Arabako Foru Aldundiak behin eta berriz uko egin dio Lurmenek eta argitzearen aldeko taldeek egindako eskariari. Zerbaitegatik izango da.


Esandako guztia salatzeke, eta auzia behin betiko argitzea eskatzeko, manifestazioa egingo da Gasteizen, martxoaren 30ean, eguerdiko 12etan, Foru Aldundiko Plazan hasita. Han ikusiko dugu elkar. Lortuko dugu denon artean.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).**

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

## KOMIKI TIRA

# AHT



## HAUSNARKETA

**Garbitasuna herrian**

Udalak herria garbitzeko brigada berezia aktibatu du. Zein lehentasun ikusten dituzte herritarrek?



**RUBEN GARCIA**  
HERRITARRA

"Ikusi dut brigadak badiharduela. Duela egun batzuk udaletxera jo nuen Ezozibideko etxeen azpiko aldeko sasitza garbitu dezatela eskatzeko, arratoi asko dabilelako. Esan didate obrak amaitu ostean garbituko dutela."



**MARGARITA ARTOLAZABAL**  
HERRITARRA

"Ikusi dut brigadak Txurrukenen aldapa desbrozatu duela. Nik ikusten dudana beste arazo garrantzitsu bat da txakur-kaka eta txizarena, edozein lekutan egiten dutelako. Gainontzean, gauzak berrituta beti egoten dira hobeto, hori bistakoa da".



**ANE BASTARDO**  
HERRITARRA

"Ez nekien ezer brigada bereziaren inguruan. Nik ikusten dut zaborrontzi gehiago behar direla, batez ere, Institutuaren inguruan. Kiroldegi gaina ere zikin egoten da eta komeniko litzateke garbitzea".



**ALBERTO ALBERDI**  
HERRITARRA

"Entzun dut zezor brigadaren inguruan. Herria nahiko zikin ikusten da, batez ere, txakur kakak baina baita zaborra edukiontzietatik kanpo. Dena den, ardura guztia ez da administrazioarena, gurea ere bada gauzak ondo egitearen ardura."

## PUNTUA



**JOSUNE ARAMENDI**

**Kuadrilla bazkariak**

**L**arunbata, eguerdiko ordu bat eta erdiak. Duela ez asko, dagoeneko hiru taberna pasata izango zenituzten. "Zerbait hartu beharko dugu jatetxera igo aurretik, ezta?", "Bai, bai. Benga, erronda nire kontu, zer nahi?"

Eta, horrela, berez poteoa zena ondoan egokitu zaizun kuadrilla kidearekin egunean jartzeko ariketa bilakatzen da. Kaña astiro doa beherantz, azken bi hilabetean ikusi ez duzun lagunari zure mobiden berri eman eta hark berekin erantzuten dizun bitartean. Ez zenekien baina lana aldatu du hirugarrenez. Bazoazte.

Mahaian jarri eta, sorpresa! Noiztik dira guraso direnak guraso ez direnak adina? Kriantzari (bai ojo, orain ja bazkarietan ez da kalimotxorako ardorik edaten) trago egin eta Inesen ahotsa datorkizu burura "dena, dena aldatzen da...". Baina nostalgiak irentsi aurretik, burua jaso eta jendeari so gelditzen zara.

Ziurrenik zuen harremana ez da ideala, hurrengo astean deituko dizula esan dizunari deitzea ahaztuko zaio eta beste bi hilabete joango dira berriz denok elkartu arte. Eta? Hor zaudete, gustura, barrez, zuen saltsan. Agian, dena ez da hainbeste aldatu.





# Zubiak, herriaren lotura eta pasabide

Gabolatseko zubi zaharra bota eta berria ipintzen ari direneko abagunea baliatuta, haren eta herriko beste sei zubiren gaineko historia jaso du Pil-pileanek segidako orriotan. Aztertutako sei zubiak herrigunean dauden zubi nagusiak dira, bitxikeriaren bat zein beste gehituta.

Testua: **Ubane Madera Zangitu**. Argazkiak: **Kontrargi, Sorapedia, Fernan Oregi eta Ubane Madera**.

**D**eba ibaia Soraluzeke ardatz orografikoa da. Gaur egungo herriaren sorrera bera ibaiaren alde banatan zeuden Soraluzeke eta Erlaegia -Erlei, orain- bizilagunak elkartu eta herrigunea sortzeko Gaztelako Alfonso XI.a erregearen aginduaren ondorioa da. 1343an izan zen hori.

Ibaiaren alde bietan eraikitako udalerria izanik, ibaia zeharkatzeko ibien edo harpasoen garrantzia eta haien ondorengo diren zubien ugaritasuna dira Soraluzeke ezaugarri.

## Harpasoak, ibiak eta zubiak

Euskal Herriko errege-bideen ardatz nagusietako bat Debarrokoa zen. Araba itsasertzarekin lotzen zuen eta Deba ibaia zein hainbat erreka zeharkatzen zituen. Horretarako, hasieran ibiak baliatu bazituzten ere, garraioa errazteko zubiak eraiki zituzten; egurrezkoak hasieran eta harritzkoak gero. Soraluzeke sorreran, bi harpaso nagusi zituen herriguneak, Gabolatseko harpasoak eta Errekaldeko harpasoak. Gerora, 1910eko hamarkadan, haien lekuan zubiak eraiki ziren. Eta Errege-bidea Soraluzeke zetorrenez, besteak beste, Zubi Nagusia ere eraiki zen XVI. mendean, herriaren erdian.

Gaur egun, 6 zubi ditu herriguneak, Mendizabaleneke industrialdean hasi eta Mendiolarainoko tartean. Txikiagoak ere badira, baita landa eremuan ere. Segidako orriotan dago jasota sei zubi nagusien historia. Horretarako honako iturriak erabili dira: Jabier Elortza, Ramiro



Zubi Nagusia. INDALECIO OJANGUREN



Zubi berrituta 1967. SORAPEDIA



Estropadak zubipean.

## Zubi Nagusia herriaren erdian

Herria sortu zenean, zubi nagusia ere egin zuten herriaren erdi-erdian. Sorreran, Soraluze zen Kalebarrengo botikatik Santa Anako 13. atariraino.

Inguruko gune garrantzitsuena bihurtu zen Zubi Nagusia ehunka urtetan, XVII. mendean Bergara eta Altzola arteko errepede berria egin zuten arte. Izan ere, Arabatik itsasorako bideak Deba ibaia zeharkatzeko beharrezkoa zen pasabidea, batik bat, merkantzien garraiorako.

### Zubi zaharraren gainean

Erdi Aroan, XVI. menderako, bazegoen zubi, XVII. mendean konpondu egin zuten eta XVIII. mendean berria egin. 1834.eko ufalak zubiaren uztai nagusia eraman zuen eta 1845ean beste uztai luze batekin ordezkatu zuten. Gero, 1967. urtean gaur egungo zubi zabala eraiki zen, azpian oraindik zubi zaharra gordetzen duena. Harrizko zubi zahar estuari porlanezko beste zubi zabal bat gehitu zioten iparraldetik, bi ertzetan finkatuta. Bi zubien plataformak

bat eginda daude eta albotik begiratuta biak ikus daitezke -gehiago azken orrian-. Harrezkero, plataformak bere horretan gorde badira ere, zubiaren gaineko aldeak hainbat aldaketa izan ditu.

Bestalde, zubiaren hegoaldeko zutabeak, zubi zaharrarenak, zubi-muturra dauka. Zubi-muturra zubien zutabeei gehitzen zaion zatia da, ura zutabearen bi aldeetara bidaltzeko, uraren indarra

arinduz. Tajamarraren gainean iturria dago, bi jarlekurekin. Iturriko ura Plaza Barritik (Ipiñarrietatik) dator.

### Bitxikeriak

1967 urteko Santiago egunean zubi berria inauguratu zuten. Ospatzeko, jaietan batel-estropadak jokatu ziren. Urte berean eraman zuten iturria gaur egungo lekura. Ordura arte, Andikokalen (Errabal kalean) egon zen (argazkian).



Zubi Nagusiko bi plataformak. FERNAN OREGI



Gabolatseko zubia. SORAPEDIA



Errekaldeko zubia. A. BOLUNBURU, URAKAPIÑAK



1983ko uholdeak. MIKEL VALERO

## Gabolatseko eta Errekaldeko zubiak

Eraitsi berri duten Gabolatseko zubia eta Errekaldekoa garai eta estilo berekoak ziren, 1915ekoak. Biak eraiki zituzten inguruan zeuden harpasoak -harri pasoak- ordezkatzeko.

Gabolatseko harpasoen kasuan, Loraldeko Altun erreka ura Deba ibaira isurtzen duen lekuan zeuden, Ugarresia igaroz -ibaiko irla-. Harpaso horren berezitasuna, Errekaldekoen aldean, ur sakonetan jarrita zeuden

harkaitzen tamaina zen. Gabolatseko harpasoak herritar askok erabili ohi zituzten Baltegiako Erregebidera pasatzeko, zubi nagusiraino joan gabe. XX. mende hasieran, zubia egin zenean, jendeak harpaso erabiltzeari laga zion. Baina uhartera pasatzeko ezinbestekoa zen, eta, umek XX. mende bukaera arte erabili zuten, urakapinetara joateko, jolasteko... Baina, ibaian garbiketak egin zirenean,

harriak mugitu egin zituzten eta gaur egun ez da apenas aztarnarik geratzen.

Zubiari dagokionez, berriz, eraiki zutenean, oinezkoentzako pasabidea zen bakarrik. Dena dela, aurki plataforma zabalduta eta egokitu egin zuten ibilgailu arinak ere pasatzeko.

Ipiniko duten zubi berria, berriz, 5 metro zabal izango da, 3 metro ibilgailuentzat eta 2 metro oinezkoentzat. Horrez aparte, ez du zutaberik izango ibilguan, presa efektua saihesteko.

### Maxpeko zubia, Atxurikoa...

Errekaldeko harpasoek, berriz, Santa Ana kaleko ibai ertzetik -Maxpe esaten zitzaion-, Atxuriko beste ertzerara pasatzeko balio zuten. Hortik datozkio zubiari Maxpeko zubia edo Atxuriko zubia izen zaharrak. Gerora, Santa Anako zubia ere esaten hasi zitzaion. Orain, berriz, Errekaldeko zubia da izen zabalduea. Asmoa da zubi hori ere botatzea eta berria egitea oinezkoentzako.



Gaur egungo zubia. FERNAN OREGI





Zeletako zubia 50eko hamarkadan.



Zubia azken berritzearen aurretik.



Saihesbideko eta zubiko obrak, 2003an.

## Zeletako zubia, herria mendiarekin lotzeko

Herrian, ibaia zeharkatzeko zubiez gain, badira ur gainetik ez doazen beste batzuk ere. Horietako bat, handiena, Zeletako zubia da. Gaur egun ezagutzen dugun zubia bertan eraikitako hirugarrena da.

Lehena 1894an eraiki zuten, 1888an Durango-Zumarraga trenbidea egin ondoren. Sasoi hartan, Zeletan kanposantu berria zegoen eraikita; zehazki, 1858an saldu zuten hango lehen partzela. 1887-1888 urteetan, trenbidea eraikitzeko, lubaki handia egin zuten kanposantuaren parean. Eta justu, trenaren lubakia zeharkatu eta mendiko auzoetarako zein mendirako bidea mantentzeko eraiki zuten Zeletako zubia. Lehenengo zubi hura harrizkoa, arkuduna, eta nahiko estua zen, gurdi bat pasatzeko lain. Zubi hori trenbidearekiko perpendikularra egin zuten.

### 2003an azken zubia

Gerra ostean, berriz, egur-kamioiak gora eta behera hasi

zirenean, zubiari zabalera handiagoa emateko porlanezko hegalak egin zizkieten bi aldeetara. Baina urteekin bigarren zubi hura ere txiki geratu zen. Ibilgailuen trafikoa asko handitu zen. Batik bat, inguruan bizilagun kopurua handitu egin zelako, 70eko hamarkadan eraiki baitziren Zeleta auzoko lehen etxeak. Trafikoa handitzearen ondorioz, oinezkoentzat

segurtasun falta zegoen. Gainera, egur-kamioiak gero eta handiagoak eta atoidunak ziren eta azkenetako, zubi zaharra bota eta berria egin zuten. 2003. urtean izan zen hori. Ezozibidetik Olearako zeharbidea eraiki zutenean egin zuten Zeletako gaur egungo zubia. Azken hori diagonalean eginda dago kurbak arintzeko, nahiz eta aldapa handiagoa izan.



Zeletako zubia aste honetan.



Oleako presa, zubi barik.



Oleako Osíña.



Oleako presa eta Osíña baztarrean.

## Oleako zubia eta Oleako osiña

Oleako zubiari, proiektua zenean, Albesako zubia ere esaten zitzaion, ibaiaren alde batean Albesa lantegia -Alberdi Hermanos SA- zegoelako, Pascual Churruca lantegiaren ondoan. Zubia 2003an eraiki zuten, herri barruko saihebidetaren -Estaziñotik Olearainoko errepidea- azken zati modura. Zubia egiteko, Oleako presari pare bat metro kendu zizkieten eta Olaldeko gainezkabidea bete egin zuten.

Saihebide horren lehen zatia, Ezozibidetik Estaziñorainokoa, trenbidea itxi ondoren egin zuten, 1971n.

Zubiari dagokionez, bi errai ditu, norabide bakoitzeko bat. Eta espaloiak bi alboetan. Autobus geltokia ere badauka. Soraluze-Ondarroa autobusa bertatik abiatzen da, bestek beste, Mendaroko ospitalean geldialdia eginez. 2013an jarri zioten markesina geralekuari.

### Oleako osiña eta hondartza

Oleako zubia eraiki arte, harako bide bakarra herri barrutik



Oleako zubia gaur egun. FERNAN OREGI.

joatea zen. Olean industrialdea ere bazen orduan baina herri barrutik pasa behar zen eta, gainera, Santa Ana kaleko arkuak bidea estutu egiten zuten. 1950eko hamarkadan arkuak nasaitu egin zuten. Baina bidea estua eta aldapatsua zen; hamaika kamioi geratu dira trabatuta.

Bestalde, Olea igeri egiteko leku kuttunetako bat izan da, batez ere, zentralentzako eta Alberdi tailerentzako XX.

mendean Oleako presa egin ondoren. Presaren altuerak uraren sakonera areagotu zuten, igeriketarako leku ezin hobea bihurtuz. Hondartza izena ere bazuen, adibidez, 1818ko espedienteetan. Aipagarriak dira, putzu horretan zeuden “*tapakuak*”, pertsona heldu bat zutik guztiz murgildu zitekeen lekuak; garaiko gazteen artean, jolas gustukoena zen ur azpian nork denbora gehiago eman, “*amamurgil*” eginez.

## Mendiolako eta Mendizabalenerako zubiak

Soraluzek herriaren hasieran, erdian zein bukaeran ditu zubiak. Horren adibide, herriaren bi sarreretan daudenak, Mendizabalenerako zein Mendiolako zubiak. Biak ala biak herrian eraikitako zubi berrietakoak dira, XX. mendeko 70eko hamarkadan egindakoak. Hain zuzen, bi zubi horiek egin ziren bertan eraiki ziren izen bereko industrialdeetarako pasabide modura.

### Industrialde berriak

Industrialdeei dagokionez, berriz, 60ko hamarkada bukaeran herrian edozein lekutan egokitzen zituzten lantegiak: etxe sotoetan, lantegi zaharretan, lantegi berriak... Herria txiki ari zen geratzen eta horri irtenbidea emateko sortu ziren industrierako guneak; kasu honetan, Eibartik etorrita Mendiola eta Bergaratik etorrita Mendizabal.

### Mendiolako zubia

Mendiola industrialdeko zubiari dagokionez, bi erabilera ditu: Mendiola industrialderako sarrera da bata, eta, herrirako iparraldeko sarrera da bestea.

Zubiaren ezaugarriak begiratuta, zubia eusteko zutabe borobil bakarra dauka. Plataformak bi errai ditu, eta alboetan espaloi ez oso zabalak.

Herriko saihasbidearen ipar muturra bertan dago, kurban, eta aldapa gogorra denez, behin baino gehiagotan erori



Mendiolako zubia. U.M.

izan dira ibilgailuak Deba ibaira, justu zubiaren ondotik. Gehienetan ez da zauritu larririk izan, baina inoiz hildakoak ere izan dira.

### Mendizabalenerako zubia

Mendizabalenerako zubiari dagokionez, berriz, hura bakarrik Mendizabal industrialderako sarrera da eta

industrialdeko ugazabak berak eraiki zuen, modu pribatuan. Noski, gaur egun ere izaera pribatua dauka zubiak.

Ezaugarriak dagokionez, berriz, nahiko estua da. Eusteko estribu bakarra du erdian eta atea ere badu, industrialderako pasabidea galarazteko, bertan lanean ez dihardutenean.



Mendizabalenerako zubia.



## Bitxikeriak eta ezkutuko zubia

Herriko zubien kontuekin lotuta, bitxikeriak ere badira. Zubi Nagusiak, adibidez, baditu halako hainbat.

Esaterako, Soraluzeri buruzko Lamoten grabatuak erakusten duen moduan, lehenago zubiak hiru arku zituen. Ofita izeneko harriz eginda zeuden. Harriak Errekalde-Ertaegin zegoen harrobitik ateratakoak ziren eta zubiak aparte, besteak beste, udaletxea, Abade Etxea eta elizaren dorrea eraikitzeko ere erabili zen harri mota hori.

### Bi arku mota

Baina herriak izandako ufal handienetakoa batek hiru arkuetatik bi bota egin zituen. Zubia konpontzerakoan, arku bakarra gehitu zioten eta birekin laga. Bigarren arku berria kareharriarekin egin zuten, Eibar-Zaldibarren zegoen harrobitik ekarritakoarekin. Eta gaur egun hortxe daude bi arkuak, ofitaz egindakoa bata eta kareharriz egindakoa bestea. Hori ikusteko lekurik onena da Santa Anako zerkatik ibaira jaitsita dagoena. Bertatik argi eta garbi ikus daitezke zubi zaharra zein berria.

### Galipoteko zubia

Frontoiko zubia da herriko beste bitxikerietako bat. Antzinakoa da, txikia eta ezkutuan dago. Askok jakin ere ez dakite Frontoian zubia dagoenik. Galipoteko zubia du izena eta Frontoitik Santa Ana kaleko 13 zenbakiko bigarren pisura heltzen da. Arku ederra dauka.



Zubiko bi arkuak. FERNAN OREGI


Jabier Elortza historialariak kontatutakoaren arabera, zubia 1780ko hamarkadakoa da. Orduan ez zen han frontoirik. Han zegoena zen elizarako pasoa.

Galipoteko arkuak, udaletxeko arkuak zein elizako dorrea Elgetako Juan de Aranzeta margin entzutetsuak egindakoak dira.

Frontoiari dagokionez, zaharra oraingo Errege Etxean

zegoen. Errege Etxe berria egiten hasi zirenean, 1805-1807an, frontoia desagertu egin zen. 1825 inguruan hasi ziren Errebote Frontoia egiten, baina ordurako bazegoen Galipoteko zubia.

Santa Anako 13. zenbakia, berriz, Kalegoeneko azkena da. Beraz, herriaren harresiaren barruko parte zen. Galipoteko zubiak duen etxea da kaleko zaharrena.



Galipoteko zubia. U.M.

LABORAL Kutxa  -k eta AMA Tolosa  -k aurkezten dute:

# BABESLEAK

Partekatutako balioetan oinarritutako harremana.

**LABORAL Kutxan** eta **AMA Tolosan** bat gatoz gure lurra eta nortasuna babesteko konpromisoarekin.

Eta, espiritu horrek bultzatuta, **oso zozketa berezia** egingo dugu:

AMA Tolosako **4 esperientzia gastronomiko** eta **2 lagunentzako gau bateko egonaldia nekazaritza-turismoko establezimendu batean\***.



**HARTU PARTE HEMEN:**

[laboralkutxa.com/eu/babesleak-ama-tolosa](http://laboralkutxa.com/eu/babesleak-ama-tolosa)

\*LABORAL Kutxaren bezero diren 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek hartuko dute parte zozketan, baldin eta 2025eko martxoaren 16tik apirilaren 20ra bitartean mezu elektronikoko galderari erantzuten badiete. Zozketa, AMA Tolosa jatetxeko esperientzia gastronomikoen 4 sorta, 2 lagunentzat bakoitza, eta gosaria barne duen 2 lagunentzako ostatu-gau bat, KORTETA AGROTURISMOA establezimenduan, 2025eko maiatzaren 10erako. AMAko lantegia maiatzaren 10eko arratsaldean izango da, 18:30 aldera, eta, ondoren, afaria zerbitzatuko da. Joan-etorriak ez dira sartzen. Zozketaren data: 2025eko apirilaren 22a. Ikusi zozketaren oinarriak [laboralkutxa.eus](http://laboralkutxa.eus) webgunean.





**Bada beste modu bat**

## Infomaitemindu ➔

Bidali 

**ALTA 747 444 777**

zenbakira eta jaso Gipuzkoa eta Foru Aldundiari buruzko informazio garrantzitsuena.



 **GIPUZKOA**  
Foru Aldundia

# San Andresen hasi da

GIPUZKOAKO HIRU TXIRLO TXAPELKETAREN LEHEN JARDUNALDIA

---

## TESTUA ETA ARGAZKIAK EGOITZ

UNAMUNO

---

Martxoaren 15ean, bolariak hitzordu berezia izan zuten San Andresen, Gipuzkoako 54. Hiru Txirlo Txapelketaren lehen jardunaldia zela eta.

Goiztiarrenak eguerdian bertaratu ziren bolatokia probatzera, eta ostean, sanandrestarrekin batera bazkaldu zuten elkarteetan.

Arratsaldean eguraldiak okerrera egin zuen: Bi-hiru graduko tenperatura, ipar haize fina eta elur pikorra ere bota zuen, baina bolariak ez zioten huts egin hitzorduari eta arratsaldeko bostetarako dozenaka bolari zeuden bolatokiaren bueltan, jaurtialdiari ekiteko gertu. Tartean ziren Debagoieneko herrietatik etorritakoak, eibartarrak, elgoibartarrak, itziartarrak, azkoitiarrak eta baita markinarrak ere, Bizkaiko herri horretan ere hiru txirloen modalitatean jokatzeko baita.

### Jabier Osoro garaile

Guztira, hirurogeita hamaika bolarik eman zuten izena eta guztien artetik, Jabier Osoro elgoibartarra gailendu zen, San Migel taldeko beteranoa, sei txirlo botata. Bigarren egin zuen Asola Berri taldeko Anartz Esteban eibartarrak, honek ere txirlo kopuru bera botata. San Andres taldeko Aimar Perezek eta Ezoziko Txikik eta anaia Bittorrek ere egin zuten

ahalegina, baina ez zuten zorterik izan. Arratsaldeko sei eta erdiak aldera, Juan Kruz Arizaga sanasdrestarrak entregatu zizkien sariak eta elkarteetan salda beroa hartuz, epelean, amaitu zuten jardunaldia.

### 110 bolari txapelketan

Hiru txirlo txapelketaren finala (Lehendakari Saria) ekainaren 7an jokatuko dute Azkoitiko Floreagan baina aurretik, hamar jardunaldi jokatu dituzte hamar bolatokitan, erdiak zapatu arratsaldetan eta beste erdiak bariku gauetan. Zapatu honetan jokatuko dute hirugarren jardunaldia Bergarako San Joxepen eta maiatzaren 10ean, berriz, zazpigarrena, Ezoziko bolatokian.

## JABIER OSORO ELGOIBARTARRA GAILENDU ZEN, SAN MIGEL TALDEKO BETERANOA

## PLAZENTZIATARRAK BI TALDETAN BANATUTA DAUDE, EZOZIKO TALDEAN ETA SAN ANDRESKOAN

Guztira, 110 bolari daude izena emanda txapelketan eta hamar sari baino gehiago dituzte jokoan generoaren eta adinaren arabera: norbanakoak (emakumezkoena eta gizonezkoena), taldekakoa, bikotekakoa, 60 urtetik gorakoa, infantilena, alebinena, benjaminena, jubenilena...

### Plazentziatarrak bi taldetan

Jose Antonio Nuñez 'Txiki'-k azaldu duenez, txapelketan izena emanda dauden zazpi plazentziatarrak bi taldetan banatuta daude, Ezozikoan eta San Andreskoan. Plazentziatarren artean, gazteena Aimar Perez da eta zaharrena, berriz, Juan Kruz Arizaga 'Korta'.

### Aurrera egiteko ahaleginean

Eibarko Asola Berri taldeko Garikoitz Rodriguezek dihardu txapelketaren koordinatzaile lanetan, eskuz esku, berriki idazkari izendatu duten Enara Montielekin. Rodriguezen eta Montielen esanetan, asteburuero "kuadrilla polita" batzen da bolatokietan baina, oro har, bola jokoa ez dago bere onenean: "Bolariak zahartuz doaz eta aspaldian, gazte gutxi dator. Umeak hasten dira, baina gero, futbola dela edo bestea dela, laga egiten dute". Dena den, ez dute etsitzeko asmorik: "Guk gozatzen dugu eta jarraituko dugu lanean kirol honek aurrera egin dezan".





Lehen jardunaldian parte hartu zuten bolarietako batzuk. EGOITZ UNAMUNO



J.A. Nuñez 'Txiki' (San Andres).



Aimar Perez (San Andres).



Aitziber Olaizola (San Migel).



Javier Osoro (San Migel).



San Andresen saritutako bolariak Juan Kruz Arizagarekin, sariak eskutan.

# Herria nolakoa zen, duela ehun urte

TESTUA EGOITZ UNAMUNO

ARGAZKIAK INDALECIO OJANGUREN (KONTRARGI)

"Harrigarria da ikustea herria zela aldatzen den urte gutxiren buruan, ba, pentsa zer den ehun urteko aldaketak ikustea", dio Oscar Perezek. "Amerikarra izan balitz, ezaguna izango zatekeen mundu mailan", gehitu du Mikel Valerok. Ondare historikoaren bi zaleok, Indalecio Ojangurenen argazkiez dihardute, Kontrargiren lokalean. Hantxe garbitu eta prestatu dituzte martxoan ikusgai izan den erakusketarako argazkiak Foru Aldundiaren artxibotik eskuratu eta gero. Herritar asko joan da erakusketara eta gustura daude. Pentsatzekoa da Indalecio bera ere gustura legokeela ikusita plazentziatarrek bere lana nola baloratzen eta zaintzen duten.



◀ 1953an, mendi taldeek omenaldia egin zioten Intxortan Indaleciori (besoak gurutzatuta). Leire Iraeta plazentziatarra kantari (neskatila).



◀ Santa Anako konbentuaren arkua eta 'Kalegoen' izena zuen kaleko etxeak, tartean, Meltxorrenekua famatua. Kanean, adokina, umeak eta enborrak.







◀ 'Asilo y Colegio de Nuestra Señora de las Mercedes' eskola, Atxuriko iturria eta goiengan, Erlei baserria eta mendi magala erreperiderik gabe.

Prozesioa Ezoziko Ama bizkarrean hartuta, Ezozin. Gizonak, abadea bere trajearekin, kandelak eta aurpegi serioak. Inguruan, arto sailak soroetan. ▶



◀ Plaza Zaharra, Erregetxea eta hiltegi zaharra zutik dituela. Ezkerrean, Arregiako etxe zaharraren horma eta umeak jolasean plazan.



Soraluze XX. mende hasieran. Ezkerrean, harresi zaharrak. Ibai ertzean, Batzokirik ez eta pasabide estua Gabolatseko zubian. ▶





## ZERBITZUAK

### ZORION AGURRAK



**Ekain Larrañaga Agirre**  
Apirilaren 21ean 21 urte. Zorionak Ekain!!!



**Maria Jesus Arrizabalaga Elorza**  
Apirilaren 17an 80 urte. Zorionak amama!!!!



**Ioritz Aizpitarte Aranguren**  
Apirilaren 2an 42 urte. Zorionak amatxo!!!!



**Oihan Larrañaga Agirre**  
Martxoaren 4an 19 urte. Zorionak Oihan!!!




**Aitor Agirre Aizpitarte**  
Apirilaren 27an 12 urte. Zorionak Aitor!!!



**Xabi Alberdi Fayanas**  
Martxoaren 9an 6 urte. Zorionak bihotza! Askok maite zaitugu!!!!



**Amets Uzin Zubizarreta**  
Apirilaren 3an 12 urte. Zorionak familia guztian partez ta segi holako mutil jatorra izaten!



**Ager Ranero Gonzalez**  
Apirilaren 25ean 2 urte. Zorionak bitxito! Pilua maite zaitxugu, etxeak ta aitxiba eta amama.

### HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

#### Hildakoak

Marisol Ariznabarreta Urkiri  
Manuel Pato Gomez

#### Jaiotakoak

Haroun Bouhjira

  
**Debabarrena GOURMET**  
Martxoaren 28tik apirilaren 13ra  
7 plateretz osatutako dastatzeko menua  
**65€**

**Baratze - Belaustegi - Kanala  
Pikua - Txurruka - Urgain**



**administradores**  
Centro Vasco de Estudios de Administracion de Empresas  
Escuela de Estudios de Administracion de Empresas



**ROSA Mª PINTADO**

Etaldeen Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna  
Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**

Gure komunitatean hainbat postontzi egoera txarrean daude. Jakin nahi nuke horien aldaketa bizilagun guztion artean ordaindu behar dugun ala bizilagun bakoitza arduratu behar den bere postontziaz.

Eraikuntza antolamenduari buruzko legeak honela dio postontzien funtzionaltasunari buruz, eraikuntzaren oinarriko baldintzetan: posta zerbitzuei sarbidea erraztu behar zaie horretarako baliabide egokiak jarri, araudi zehatzak adierazitakoaren arabera. Familia bakarreko etxebizitza eta merkataritza edo industria lokal bereizietako entregak sarreara ondoko edo goiko aldeko kutxatilategi batean egin ahal izango dira bide publikotik. Derrigorrez jarri beharko dira kalearen izena, zenbakia edo posta helbidearen beste datuak, baita urbanizazio edo eremuaren izena eta zenbakia ere. Azaldu daitezke era berean etxebizitzan bizi direnen izen-abizenak edo izen soziala ere.

Ondorioak: Postontzien gune komuna derrigorrezkoa da; eraikuntzaren funtzionaltasunerako ohiko elementua, komunitaterako ezinbestekoa. Postontziaren instalazioa jakiekideen artean banatu ezin daitezkeen gastu orokortzat jo behar da. Izan ere, instalazioa ez da bizilagun baten edo gutxi batzuen onerako, baizik eta komunitatearen zerbitzurako, posta zerbitzuak ezarritako obligazioak betetzeko da. Beraz, komunitateak osotasunean ordaindu behar du ez postontzia egoera txarrean duten bizilagunek soilik.



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2

## I. URTEURRENA

## Jesus M<sup>a</sup> Laskurain Zangitu



2024ko martxoaren 6an hil zen, 78 urte zituela.

Beti egongo zara gure bihotzetan.

Barragan Laskurain familia.

## ESKELA



## Marisol Ariznabarreta Oregi



2025eko martxoaren 14an hil zen, 80 urte zituela.

Obeko zelai bueltetan,  
udaberriko loretan  
gabon kanten epeletan  
barre algara luzetan  
sukalde usain goxotan  
begi dir dir baikorretan  
danetan egongo zara  
Gugan, gure bihotzetan

adoretsu, eskuzabal  
irriparra begixetan  
bihotza on eta eder  
esker ona ertz danetan  
zuganako maitxasuna  
hor daroiazu hitzetan  
berriz alkartu artian  
San andreseko haizetan.

Zure familia.

## I. URTEURRENA



## Joxe Bollar Txurruka



2024ko martxoaren 30ean hil zen, 71 urte zituela.

Zinalako zinan modokua, horregaitxi gogoratuko  
zaitxugu beti.

Etxekuak

## V. URTEURRENA

## Octovila Gomez Pintado

'Toli'



2020ko martxoaren 16an hil zen, 74 urte zituela.

Zaila izango da onartzea ez zaitugula berriro ikusiko, baina bizi garen bitartean beti gogoan izango zaitugu.

Ez zaitugu inoiz ahaztuko.  
Beti egongo zara gure bihotzetan.  
Asko maite zaitugu.


Zure familiaren partez.

# Antxustegi

Zure ametsak sukaldatzen!



[www.antxustegi.com](http://www.antxustegi.com)



Antxustegin behar duzun dena topatuko duzu. Ez eman buelta gehiagorik; zatoz eta ezagutu gure sukalde aukera zabala!



ZERAKAK  
ETA HABIA



LURORU  
LARRUNTUA



BARROZUTAKO  
PARRA



BARUGELA



BURDINDIA



ERAKUNTERRAKO  
BATERAK



SUKALDEAK

Olaso Olasope, 5, industriagunea- 20870 Elgoibar - 943 743 344 / 943 740 692